

Bilbao Gazte Youtuber neska bat eta mutil bat hautatzeko lehiaketa.

Bilbaogazte.bilbao.eus 18 urtetik gorakoentzat Bilbon eskainitako baliabide, programa, jarduera eta proposamenei buruz gazteei informazioa emateko Gazteria eta Kirol Sailak sortutako puntu birtuala da.

BilbaoGazte Youtuberren bidez, beste pausu bat egin nahi dugu, kanal eta hedabide berri zuzenago, erakargarriago eta gertukoagoa sortuta.

Nork eman dezake izena lehiaketa honetan?

Gazteek:

- Adina: 18 eta 25 urte bitartekoa
- Bilbon erroldatuta egon behar dute.
- Elebidun izan, euskaraz eta gazteleraz.

Zer aurkeztu behar da?

- Hurrengo gaia dakarren bideo editatua: Zer egingo dudan Bilbon hurrengo asteburuan.
- Bideo honetan euskara zein gaztelania erabiliko dira eta, gehienez, 5 minutu iraungo du.
- Hasi bideoa zure izen-abizenak, adina, okupazioa (ikasketak, lana...), zaletasunak eta aisialdian egiten duzuna kontatuz.

Noiz eta nola aurkez dezakezu bideoa?

- Bideoak aurrez aukeratzeko prozesuan sartuko dira 2019ko **urriaren 7ko 23:59**raino jasotako bideoak.
- Bidali :
 - bideoa eta
 - erantsitako fitxa We Trasferren bitartez gazteria@bilbao.eus helbide elektronikora. Fitxa bilbaogazte.bilbao.eus webgunean dago. Bertan adierazi harremanetan jartzeko datuak nahiz bideoaren izena.

Epaimahaikideak:

Lau kidek osatuko dute: Gazteria eta Kirol Saileko ordezkari bat, Komunikazio Udal Saileko ordezkari, Gazteriaren Euskal Kontseiluaren ordezkari bat eta bilbaogazte webgunea eta sarea kudeatzeko ardura daukan Alianzo enpresaren ordezkari bat.

Hautaketa Prozesua:

- 10 neska-mutil aurrez hautatuko dira.
- Horiei elkarrizketa bana egingo diegu, azkenik neska bat eta mutil bat aukeratzeko.

Baloratze irizpidea:

- Aurre-hautaketan informazioa helarazteko gaitasuna, komunikatzeko estiloa, irudiaren kalitatea eta bideoaren edizioa baloratuko ditugu.
- Elkarrizketan, beste alderdi batzuk baloratuko dira, besteak beste, gazteen ikuskeraren barruan hautagaiek Bilbori buruz duten ikusmoldea, proposamenak luzatzeko gaitasuna eta komunikazio arloko ekintzetan duten eskarmentua (formala izan ez arren).

Aurkeratutakoak:

- Aurrez hautatutako youtuberrek 2019ko urritik 2020ko apirilaren arteko epean, banaka edo batera, hileroko bina bideo editatu behar izango dituzte (bideo 1 euskaraz eta bestea gaztelaniaz), Alianzo enpresak emango dizkien irizpideen arabera. Enpresa honek emango die egindako lanen ordainsaria (150 € bideo bakoitzeko)

Informazioa:

Bilbaogazte.bilbao.eus

gazteria@bilbao.eus

944236242